

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza<sup>info</sup>

Asteartea, 2011ko ekainaren 7a. VIII. urtea. 2.239. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



## Uretako kirolak Tolosan eta Villabonan

‘Kirolari ateak zabalik’ ekimenaren barruan, piraguak, batelak eta bestelako ontziak izan dira nagusi asteburuan ◊4



Tolosako Zerkausiaren inguruan jarduera ugari egin ahal izan ziren. S. GOMEZ

## ‘Kalitatea Hezkuntzan’ saria jaso du Zumadik

Amezketako eskolako arduradunak duela lau urte hasi ziren parte hartzen ikastetxe publikotan kalitatea hobetzeko proiektuan ◊3

→ **Irigoien Gorostidi Harria Txapelketako garaile.** Adunako frontoia txiki geratu zen herenegun, V. Gorostidi Harria ikusteko. Aimar Irigoien errezildarra izan zen nagusi, 137 kiloko harria bost minututan 31 aldiz jasota. Leitzako Josetxo Urrutia harri-jasotzaileak 14 aldiz altxa zuen, eta bosgarren egin zuen. ◊7

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
**HITZA** EGUNKARIAN  
uztailean **PRAKTIKAK**  
egiteko aukera

info

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**<sup>info</sup>

Bidali zure curriculuma  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) helbidera



itzulpen-enpresak  
langilea behar du bulegoan lan  
egiteko (Tolosan).

Eskatzen da:

- Itzulpengintzan edo Euskal Filologian lizentziatua.
- Hizkuntzak jakitea eta itzulpenak / zuzenketak egiten esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Interesdunek bidali CVa helbide honetara:  
[saretik@saretik.eu](mailto:saretik@saretik.eu)  
Epea: ekainak 16.

Aska ezazu  
irudimena zure  
**DISEINATU**

  
**ceinpro**  
TITULAZIO  
OFIZIALAK

**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA  
ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN**

**Irudia**



# ZEBERIOREN HERIOTZAREN XIII. URTEURRENA GOGOAN

Duela hamahiru urte Gernikan hildako Ina Zeberio ETA-ko kidearen urteurrena oroitzeko hainbat ekitaldi egin dituzte asteburuan. Alde batetik, larunbatean, Gernikan, 12:30ean, Ina Zeberio hil zuten lekuan bertan el-

kartu ziren, eta bertan omenalditxo bat egin zioten; argazkian ikus daitekeen bezala, agurra dantzatu zioten, eta lore sorta bat ere eskaini zioten. Hurrengo egunean Lizartzan bertan ere jaso zuen omenaldia Zeberio.

Mendi martxa, ekitaldia eta bazkaria izan zituzten lizartzarrek igandean. Honela, bertan izan ziren guztiek, Zeberio ez dutela ahaztu eta gogoan dutela erakutsi zuten. E. URLEZAGA

## Lizartzako hondakin urentzat araztegi berri bat eraikiko dute

Lanak kolektorearen konponketarekin hasiko dira aurten, eta 2 milioi eurotik gorako aurrekontua izango du

**M.U.** Lizartza

Diputatuen Kontseiluak Araxes ibaiaren saneamendu proiektua enkantera atera du. Araxes ibaiaren saneamendu proiektuaren obrak aurten hasiko dira, eta zortzi hilabeteko epean amaitzea espero dute. 2.685.554 euroko aurrekontua du proiektu honek.

LKS enpresak egin du saneamendu proiektua, eta hiru jarduketara aurreratu ditu. Batetik, Lizartzako udalerrian dagoen kolektorea konponduko dute, bestetik, Elizondoren adar berria eraikiko dute, bi kolektoreak elkartuko diren interzeptorearekin eta,

azkenik, eroanbide nagusi berria egingo dute Araxes ibaiaren uribilguari jarraituz, Goikoetxehandia inguruan egingo den araztegi berriraino.

Lizartzan, Araxes ibaiaren eskuineko bazterrean, bideratze hormara itsatsitako kolektorea dago. Kolektore horrek, inguru horretan dauden etxebizitzetako hondakin guztiak jasotzen ditu, eta hausturaren bat du kanalizazioan. Haustura hori, *slip-lining* deituriko teknologiarekin konpontzen saiatuko dira. 400 milimetroko diametroa duen kanalizazioaren barnean 350 milimetroko hodi berria sartuko da, eta horri esker hondakin urak ongi isuriko dira.

Ibilguan dauden kutzatilak konpondu egingo dira, eta erregistroak ordezkatu egingo dituzte; honela, tarte osoaren estankotasuna bermatzea lortuko dutelarik.

**Sare berria eta araztegia**

Saneamendu sare berriaren proiektuak interzeptore bat egingo du. Hondakin guztiak araztegiraino eramango dituen hodia 4 eta 5 metro arteko sakoneran jarriko da, eta ibaiaren ibilbidearen azpitik pasako da hiru puntutan. Elizondoko adarrak, ibaiaren ezkerrean dagoen auzoaren isuriak jasoko ditu. Soro plazan hartunea egingo da, interzeptore nagusian sartzeko. Adar horrek 134 metroko luzera izango du, eta metro bat edo biko sakoneran lurperatuko da.

Horrez gain, hondakin uren araztegi bat eraikiko da GI-2135 errepidearen eta Araxes ibaiaren artean dagoen eremu batean.

Azkenik, Diputatuen Kontseilutik adierazi dute saneamendu sistema berria burutu ondoren, obren ondorioz kaltetuak izan diren habitat guztiak «berreskuratu eta berrituko» direla.

## Iñaki Perurenak Manuel Irujo saria jaso du

Irujo Etxea Elkarteak «euskara eta euskal kultura berreskuratzeko konpromisoagatik» eman dio saria

**M.U.** Leitza

Iñaki Perurena leitzaarri eman diote XI. Manuel Irujo saria «euskara eta euskal kultura berreskuratzeko azaldutako konpromisoagatik». Lizarrako Irujo Etxea Elkarteak ematen du saria, eta pasaden larunbatean izan zen ekitaldia.

Elkarteak adierazi zuenez, Perurenak «kirolari, idazle, aktore, bertsolari eta museo etnografiko zuzendari bezala argi eta garbi eman dio babesa euskarari, eta euskararen herriari maitasuna agertu izan dio: Euskal Herriari».

Koldo Viñuales, Irujo Etxea El-



Iñaki Perurena. HITZA

karteko zuzendariak, esan zuenez, «euskal kultura erortzen» ari da, eta Perurena bezalako pertsonak «altxatu dute, harri bat bezala». Perurenak, aldiz, Manuel Irujo saria «itzalean lanean ari den jende askok» jaso beharko lukela adierazi zuen, eta oraindik lan asko dagoela egiteko ere adierazi zuen. Bere ustez, «harriak jasotzea baino zailagoa da euskararen berreskurapen prozesua». Hala ere, zenbait aurrerapen izan direla ere esan zuen.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**→ Laburrak**

**Festetako batzordea osatuko dute, gaur**

**AMEZKETA** › Aurtengo Bartolome jaiak gerturatzeko ari direla eta gaur, 20:30ean festetako batzordea sortzeko bilera egingo dute. Interesa dutenek baliotzeko gelara gerturatu beharko dute.

**Bilduk lehenengo herri batzarra egingo du**

**IBARRA** › Bilduk lehenengo herri batzarra egingo du, bihar, asteazkena. 19:30ean udaltzeko batzar aretoan elkartuko dira, zein batzorde informatibo osatu erabakitzeko, eta bertan bakoitzak zein taldetan parte hartu nahi duen erabaki ahal izango du. Bilduko kideek herritarrak batzarrean parte hartzera gonbidatu ditu.

**Festak antolatzeko bilera egingo dute, gaur**

**IKAZTEGIETA** › Festak gerturatzeko ari direla eta gaur, 20:00etan herriko jaiak antolatzen hasteko bilera egingo dute, ikaztegiako udaltxelean. Horrez gain, 21:00etan, iaz antzerkia egin zutenak edo antzerkian interesa eduki dezaketenen ere, leku berean elkartzeko dira, gai honi buruz hitz egiteko.

## LAB sindikatuan afiliatzeko kanpaina egingo dute hiru egunetan

Gaur eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatean 10:00etatik 13:00etara egingo dira

**E. Maiz** Anoeta

LAB Sindikatuan afiliatzeko kanpaina egingo dute aste honetan Anoetan. Gaur, ostegunetan eta larunbatean udaletzeko hirugarren solairuan egingo dira. Gaur eta etzi, 18:00etatik 20:00etara egingo dira, eta larunbatean, 10:00etatik 13:00etara.

Herritarrei dei egiten diete, bertatik pasa eta LABen afiliatzeko.

Sindikatuak ordezkarien ustez, «Euskal Herriko langile klasea, mundu guztian bezala, bere bizi baldintzen kontrako eraso historikoa jasaten ari da, eta langileok antolatzea eta batzea beharrezkoa da» azpimarratu dute.

## Igandeko saioaren ostean kanpoan geratu dira Gorostidi eta Artola

Igandean izan zen saioa Zumarraga-Urretxun; Beñat eta Oihana Iguaran sailkatu dira final zortzirenetara

**E. Maiz**

Igandean jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen faseko azken kanporaketa. Bertan izan ziren Mikel Artola alegiarra eta Adur Gorostidi abaltzisketarra. Artola goizez aritu zen, eta Gorostidi arratsaldean. Lehen fasea pasa ostean, puntuazioaren arabera, biak, txapelketatik kanpo geratu dira. Inigo Gorostarzu berastegiarrak ere ez du lortu final zortzirenetarako txartela.

32 bertsolari sailkatu dira hurrengo faserako, eta horien artean, Beñat eta Oihana Iguaran lehengusuak daude. Orain atsedean hartuko du txapelketak, eta irailean itzuliko da.

# ‘Kalitatea Hezkuntzan’ saria jaso du Amezketa Zumadi ikastetxeak

Maiatzaren 30ean jaso zuten saria; Zumadi ikastetxeak duela lau urte ekin zion proiektuari

**Eneritz Maiz** Amezketa

Maiatzaren 30ean Amezketa Zumadi Ikastetxeak *Kalitatea Hezkuntzan* saria jaso zuen. Saria izen bereko proiektuaren barruan kokatu behar da, hau da ikastetxe publikoetan kalitatea hobetzeko egitasmoaren barruan. Sari banaketara 16 ikastetxe izan ziren deituak. Hezkuntza Saileko agintariak izan ziren bertan, Isabel Celaa sailburuak, Marian Ozkariz sailburuordeak eta Marcelino Hernandez Ikastetxeetako zuzendariak banatu zituzten ziurtagiriak eta oroigarriak.

Duela lau urte heldu zitoten Amezketa, *Kalitatea Hezkuntzan* izeneko proiektuari. Hiru urtetan buru-belarri aritu dira lanean: ikastetxe antolamendua eta



Kalitatea Hezkuntzan saria jaso zuten ordezkariak. HITZA

funtzionamendua modu iraunkorrean ezartzen; harrera plana zehazten; ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak definitzen; lehen hezkuntzarako tutoretza plana finkatzen, ebaluazioan erabaki komunak hartuz eta jasoaz; eskolako dokumentazioa txukuntxun antolatzen; eta irakasleen artean adostutako lan koaderno praktikoa eta baliagarriak prestatzen. Honekin batera, elkarlanean, datozen urteetarako Plan Es-

trategikoa definitu eta adostuz. Denen artean, plan horretan eskolaren nondik norakoaren inguruan hausnarketa egin zuten, puntu indartsuak eta ahulak identifikatuz, eta hemendik aurrera gure indarrak zein aspektuetan jarri nahi ditugun adostuz eta lehenatasunak markatuz.

Zuzendaritzak, ikastetxeeko partaide guztiel, zoriontzearrekin batera, eskerrak eman nahi izan dizkiete.

## → Laburrak

### Zine foruma eta janari dastaketa, Afrika zabalduz

**TOLOSA** ▶ Gaur Kultur Etxean 19:00etan, Afrika Zabaldu Zine foruma izango da. Mozambikeko Virgen Negra dokumentala eskainiko dute. 20:00etan berriaz, Magreb-eko janari dastaketa eta dantzak izango dira.

### X. Sagardo Lehiaketako finalean izan da Zabala

**ADUNA** ▶ Diputazioak antolatzen duen Sagardo Lehiaketako sariak larunbatean banatu zituzten. Sei sagardotegi iritsi dira finalera, eta tartean zen Adunako Zabala Sagardotegia. Irabazlea, Astigarragako Alorro-

ne Sagardotegia izan zen. 2.500 euro eta garaikurra jaso ditu. Aurtengo lehiaketan 13 herritako 34 sagardotegik parte hartu dute. Zabala sagardotegia, zortzi aldiz sailkatu da finalerako, hiru txapela eta bigarren postu bat eskuratu ditu. Aurtengoan ordea, ez du zorterik izan.

### Zuntz Optikoa eta Osasun Publikoa hizketagai, gaur

**IRURA** ▶ Gaur 19:00etan, herri eskolako aretoan bilera informatiboa egingo dute. Alde batetik, zuntz optikoa Iruran zabaltzeko egitasmoaren berri emango dute; etxeetara nola iritsi, baldintzak, ... Eta bestetik, Osasun Publikoaren Aldeko Eki-menaren partaideek, Tolosako Espezialitateen anbulatorioa ixteko dagoen proposamenaren berri emango dute.

## Bihar goizean Eskolako Agenda 21eko III. Topaketa egingo dute

2010-2011 ikasturtean elikadura gaia jorratu dute; ikasleek eta irakasleek esperientziak trukatu dituzte

**E. Maiz** Tolosa

Tolosaldeko eskola komunitateak (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) eta Eskola Agenda 21eko proiektuan inplikazioa duten teknikari eta bestelakoek, EA21eko III. Topaketa ospatuko dute. Eki-

taldia bihar izango da Tolosaldeko Musika Eskolan.

Helburua, Tolosaldean 2010-2011 ikasturtean zehar Eskolako Agenda 21 proiektuan Elikadura gaia landu duten herrietako ikasleen eta irakasleen esperientziak trukatzeko eta elkarlana egingo da.

### Goiz osoko topaketa

Eskualdeko herriak, Tolosaldeko Eduardo Mokoroa Musika Eskolan elkartuko dira. Eguna 09:15ean hasiko dute, eta lehenik eta behin, harrera eta informazio

banaketa egingo dute. 09:30etik 09:45era, Tolosaldeko Garatzeneko Agenda 21eko koordinatzailea den Garbiñe Mendizabalengon ongi-etorria izango dute. 09:45etik 09:50era, lan taldeen aurkezpena egingo dute, eta 10:00etatik 11:00etara, taldeko lana egin behar harko dute. 11:00etatik 11:20era, atsedean pixka bat hartuz hamaitaketa egingo dute.

11:20etik 11:50era, egindako lanaren aurkezpena *Globalki pentsatu eta herrian eragin* lelopean. 11:50etik, 12:00etara, itxiera izango da.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Haretegiko langileak.** Haretegirako eta urdaitegirako langileak behar ditugu Alegian. Interesa dutenek, eraman dezatela euren curriculuma lehenbailehen Alegiako Aliprox dendara: San Juan kalea, 44.

■ **Zerbitzaria.** Esperientziadun neska euskalduna behar dugu,

asteazken zehar taberna batean lan egiteko. Interesatuak, deitu 680 10 39 59 telefono zenbakira.

■ **Langilea.** Uztailean fregaderan lanean aritzeko pertsona bat behar da, eta sukaldean ere pixka bat dakiena. Interesatuak, 665 70 87 70 telefono zenbakira deitu beharko dute.

### ESKAITZA

■ **Klase partikularrak.** Psikopedagogian eta hezkuntza berezian tituludunak. LH, DBH1 eta DBH2ko ikasleei zuzenduriko klaseak emango lituzke, Andoain, Aduna, Villabona, Zizurkil, Asteasu eta inguruetan. Interesatuak, deitu 669 00 56 71 telefono zenbakira.

**www.tolosaldea.hitza.info**

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegialdea.hitza.info  
www.anoetaldea.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info  
www.leitzaldea.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

**Tolosa**



**UDABERRIKO LOREAK ETA ARTISAUTZA TOLONAN**

Pasa den larunbatean, Tolosa Berdez egitarauaren barruan, XXII. Lore eta Landareen Azoka berezia izan zen egun osoz, Trianguoa plazan. Landareen usaintsuak, garalloak, ekologiokoak, fruta-arbolak, baratzeak...

zuhaitzak, bonsaiak eta zuhaitzak eskuragarri izan ziren, azokaria etorri ziren sei mintegien eskutik: Aginagako Arantxuru, Zarauko Blasenea, Pulkiko Guillen, Tafi-Ilako El Montañes, Irungo Bonsai eta Oreretako Irlaya.

Honekin batera, Tolosa Berdez-en barruan, Alde Zaharreko Bost plazetan lorategiak jarri dituzte. Era berean, San Frantzisko parrokiaren artisautek azokako postuak asteburu osoan izan dira kusgai.

**Tolosa**



**AUTOGESTIOA IZAN DUTE HIZPIDE**

Ostiralean Bonberenea proimanoen bilgune izan zen, Orain hilabete batzuk egindako gune berriari bidu ziren herriariek, eta bertan Bonbereneako kideek etxearen nondik norakoan berri eman zuten. Bonberenearen ingurua azaratu ondoren, gauz egungo proiektuak azaldu zituzten bertaratuak, eta bertan lan egindako hainbat presonak hiz egin ondoren, Gose taldeak sortu berri duen Bonberenea sustanabestia eskaini zuen.

**Tolosa**



**KIROLA NAGUSITU DA**

Pasa den igandean, hilak 5, Kirolari ateak zabalik dituriko jardunaldiak izan zen eskualdean. Tolosan, Orin ibaian piraguan, batelean eta bestelako ontzietan batzeko aukera izan zuten herriariek, egunaldiak lagundurik. Villabonan ere, kirolari eskainitako eguna izan zen, eta herriariek uretako kirolak ezagutu ahal izan zituzten.

**Tolosa**



**ARANE BASERRIA ERAITSI ZUTEN OSTIRALEAN**

Pasa den ostiralean, hilak 3, Tolosaldeko Arane baserria eraitsi zuten, Abiadura Handiko Trenaren obrak dirrela eta. Baserriaren jabeak bere lagunak jakinarazi zituen baserria botatzeko ari zirela, auzokideek azaldu dute-

nez, eta obraren arduradunek geroago deitu zituen, kalte-ordainak jada ordaindu zituzkiotela esanez. Baserria eraisteko makinak zeuden lekura Guardia Zibila bertaratu zela ere nabarmendu dute bizilagunek. Ho-

rrala beraz, eta AHTaren kalteak salatu proiektuaren aurka protesta egiteko, datorren ekainaren 11n Arrasaten manifestazioa antolatu dute, arratsaldeko 18.00etan.

**Villabona**



**LOREAK OPARI IZAN ZIREN LARUNBATEAN**

Tolosaldeko Aste Berdearen barruan, hainbat ekintza izan ziren pasa den astean. Larunbatean, esaterako, lore banaketak egin zuten Villabonan. Goizeko 11:30erako ilara luzea bildu zen, eta alegrak eta geranioak banatu zituzten bertaratuak.

Tolosaldea garatzen eta Agenda Zleko eskualdeko udalek oso balorazio ona egin dute aste berdeari dagokionez. 500 lagun inguruk parte hartu dute jardueretan, eta kontsumo arduratsuen mezuaz zabaldu dela diote.

**Aduna**



**HERRIAREN OMENALDIA**

Igande eguerdian, Adunako herriak Jabier Zabalari omenaldia eskaini zion. 1979an ospatu ziren lehen hauteskundetan sartu zen herriko udalaren, eta 2007an utzi zuten udala. 28 urte bertan lanean aritu ondoren, Emazteari ere eskaini zituzten hitz batzuk, eta Zabalaren bidelagun izandakoek, arkua egin zieten biet, ezpatekin, dantzariak agurra dantzatu eta gero.



## Kirolak &gt;

## ↓ Kirol emaitzak

## PILOTA

HERRIARTEKO PILOTA	
TXAPELKETA	
Kadeteak	
Hernani-Bidegolan	22-15
Jubenilak	
Hernani-Bidegolan	22-11
Nagusiak	
Hernani-Bidegolan	22-4

## KUTXA SARIA - PALETA

GOMA ARGENTINARRA	
Mendizabal-Elgezabal	20
Etxeleku-Arozena	30

## ARETO FUTBOLA

NAZIONAL B MAILA	
Igoera fasea	
Laskorain Ikastola	4
Gazte Berriak	6

## AIZKORA

GIPIZKOAKO II. MAILAKO	
TXAPELKETA	
Beasaingo kanporaketa	
1. Unai Otaño	08:18
5. Jokin Alkizaletxe	11:53
6. Iñaki Agirre	12:25

## Legorretako kanporaketa

1. Luisuari Txapartegi	10:08
3. Jon Irazu	10:30
6. Mikel Belauntzaran	15:24
8. Xabier Alkizaletxe	16:02

## URREZKO LEHIAKETA

3. eta 4. postua, nagusien maila	
1. Iñaki Azurmendi	21:57
2. Jon Rekondo	23:20

## TXIRRINDULARITZA

EUSKADIKO TXAPELKETA	
1. Jon Garate	
2. Martin Iraizoz	
3. Ugaitz Artola	

## LASTO JASOTZEA

GIPIZKOAKO TXAPELKETA	
1. Gotzon Arrieta	19 jasoaldi
2. Andoni Agirreurreta	16 jas.
3. Pello Argaña	16 jasoaldi

## HERRI KIROLAK

IPARRALDEKO JOKU	
TORNEOA	
Ingude altxatzea	
1. Lazaro Bujan	56 jasoaldi
2. Iker Lizarraga	48 jasoaldi
Txingak	
1. M. Angel Sukuntza	30 plaza
2. Imanol Martin	8,5 plaza
3. Lazaro Bujan	3 plaza

# Laskorainek ez du lortu mailaz igotzea, Gazte Berriak aurka galdu eta gero

Tolosarrek 4-6 galdu zuten talde nafarraren aurka eta Nazional A mailara igotzeko aukera bertan behera gelditu da

Iñaki Egizabal Tolosa

Bigarren denboraldiz jarraian areto futbol festa itzela bititu zen joan den larunbatean Usabalen. Nazional B-tik Nazional A-rako igoera *play-off*eko itzulerako neurketan, Laskorain eta Gazte Berriak talde nafarra izan ziren aurrez aurre, eta bigarren denboraldiz jarraian horitxoak hainbeste irrikatzen duten igoeraren atarian gelditu ziren.

Antsoandik hirunako berdinketa ekarriagatik, argi zeukaten ikastolako oso norgehiagoka

korapilatsua zutela aurretik, baina itzaropentsu ziren denboraldian zehar Usabalen eskuratutako emaitzak (13 garaipen eta berdinketa eta porrot bana) eta erori diren taldeen maila (Concepto, Soloarte, Gernika...) gogoratuta. Laskoraindar guztien etsipenerako ordea, Gazte Berriak itxaropen hauek goitik behera zapuztu zituzten eta 4-6 gailendu ziren, gehitutako 7-9 emaitzari esker igoera Erreinu Zaharraren bihotzerantz eramanez merezimendu osoz.

Iaz jazo ez bezala, hori bai, aurtengoan arratsalde eguzkitsua tokatu arren, Usabalerak bildutako zalegoak kirol honek berezkoak dituen hainbat ezaugarri dastatzeko parada izan zuen gutxienez: eraso jokoa, gol asko, ikusgarririk bai artean, alternatibak markagailuan... Izan ere, partida bikain

hasi zen etxekoentzat, Barriola kapitainak egin baitzuen arratsaldeko estreinakoa lehendabiziko minutuan. Bisitariak, baina, amore emateko inolako asmorik ez zutela erakutsi zuten eta aurreraxeago kormerko estrategian banakoa sartu zuten. Gil *turbo-dieselaren* bigarrenari are eta hobekiago erantzun zieten ondoren, binakoari 2-3koa erantsi baitzieten atsedenen aitzinetik.

Beharbada *play-off*aren gako honetan egon zen: laskoraindarrak ezin izan ziotela markagailuko abantailari eutsi defentsa irmoago baten bitartez. Bi neurketetan gauza berbera gertatzeak ezin du izan kasualitatea, eta azken bi denboraldiotan hain gorripatua izan den Laskorainen defentsa zonal nafarren erasorako ez dela oztopo izan kiroltasuneko onartu behar da.

Aldageletatik itzuli eta berehala, laugarrena erori zen belarrondoko baten moduan, eta bigarren zatiko minutuak nahi eta ezinezko minutuak bihurtuko ziren Javiren mutilentzat, jada berdinkeak ere ez baitzuen balio.

Oztopoak oztopo, ahalegin eskuzabal eta txalogarria burutu zuten. Azken segundoraino borrokatu zuten ametsaren bila eta Gilek bere bigarrena sinatu zuen eta Ekhi Zubilagak taldearen laugarrena, baina markagailuan beti irau zuen gutxienez bi golko desabantailak.

Oso goibel eta burumakur amaitu zuten ikastolakoek eta ez da gutxiagorako, baina burua tentetu behar dute azkar, une txar guztietatik ikasi eta ez dute ahaztu behar Laskorain 18 denboralditan sekula egon dena baina urrutirago eraman dutela.



Koldo Alonso, Los Arcoseko zirkuituan. HITZA

## Seigarren postua lortu du Alonsok

Series 600 mailan izan da, Los Arcoseko zirkuituan, Zona Norte txapelketaren bigarren lasterketan

I. Garcia Ibarra

Ibarra-Racing motoziklismo taldeko Koldo Alonsok seigarren postua lortu zuen Series 600 mailan, Los Arcoseko zirkuituan izan zen Zona Norte izeneko txapelketaren bigarren lasterketan. Lehenengo lasterketan antze-man bezala, lehiaketa berri honek gidarien maila oso altua dela egiaztatzen du bigarrenengoan.

Irteeran Alonso hamargarren postuan ateratzen duen motorrean egindako azken orduko aldaketa batzuei esker, moto berri horretan falta zuen konfiantza irabazten lagundu zioten gidariari. Lehenengo biratan lekua bilatu ondoren, postuak berreskuratzen hasi zen Alonso eta lasterketan hamargarren bukatu zuen, seigarren bere mailan.

## Zilarrezko bi domina eta brontzezko lau, eskolartekoan

Tolosaldeko zortzi igerilarik parte hartu dute, Gipuzkoa ordezkatzeko, Euskadiko Eskolartekoan

## Erredakzioa

Tolosaldeko zortzi igerilarik parte hartu berri dute Euskadiko Eskolarteko Txapelketan Gipuzkoako selekzioarekin. Zilarrezko bi eta brontzezko lau domina lortu dituzte.

Norbanakoan, Nerea Rodriguez Villabonako Jesusen Bihotzako ikaslea nabarmendu zen, 200 metro bizkarrez zilarrezko domina lortu zuen eta brontzezko 100 metro bizkarrez. Irurako

Ikastolako Marina Etxarri zilarrezko domina lortu zuen 200 metro estiloetan eta laugarren postua 100 metro bizkarrez. Tolosako Samaniego eskolako Xabier Beitiak brontzezko bi domina lortu zituen, 200 metro bizkarrez eta 400 metro estiloetan. Anoetako Ikastolako Julen Urretabizkaiek 100 metro estiloetan brontzezko domina lortu zuen.

Samaniegoko Uxue Zabalak 100 metro libreetan laugarren postua lortu zuen. Zuriñe Iglesias Tolosako Hirukide eskolakoak postua bera lortu zuen 800 metro libreen proban. Hirukideko Iban Juarrosek lau estiloetako proban parte hartu zuen eta Hirukideko Ander Alkorkak 200 metro bizkarrez proban parte hartu zuen.



Eskolarteko txapelketan parte hartu duten Tolosaldeko igerilariak. HITZA

### Berriaren edizio digitalerako DISEINATZAILE-PROGRAMATZAILE bat behar da.

Ezaugarri hauek bete behar ditu:

Erreferentzia: 2011EH-DP

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lengoaiak eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

## Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontratua (luza daiteke).
- Lanean berehala hastea (ekainean).

Bidali curriculumak gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, ekainaren 7a baino lehen.

# Irigoien nagusi, V. Gorostidi Harrian

Harri-jasotzaile errezilarrak 31 jasoaldi eman zizkion 137 kiloko harriari; Urrutia bosgarren izan zena

**I. Garcia** Aduna

V. Gorostidi Harria Txapelketan Aimar Irigoien errezilarra izan zen irabazle. Bost minututan 31 aldiz altxatu zuen 137 kiloko harria eta sasoiaren dagoela erakutsi zuen. Laster, bi astetara, Aian apustua jokatuko du errezilarrak. Beste behin, Adunako frontoian jende ugari elkartu zen lehiaketa ikusteko.

toian jende ugari elkartu zen lehiaketa ikusteko.

Guztira sei harri-jasotzaile aritu ziren Gorostidi Harria txapelketan. Tartean, Josetxo Urrutia leitzarrak parte hartu zuen, eta 14 jasoaldirekin, bosgarren postuan gelditu zuen. Bigarren postua Jesus Beliosok lortu zuen, 26 jasoaldirekin. Hirugarrena Jexumari Iruretagoiena, Izeta III.a, izan zen, 21 jasoaldirekin. Laugarren Unai Bertizek egin zuen, 19 jasoaldi lortuz. Azken postuan, ikusmina sortu zuen hamabost urteko Beñat Telleria izan zen. Harri-jasotzaile gazteak 6 jasoaldi eman zizkion harriari.



Aimar Irigoien, ahalagin betean, Adunako frontoian. SARA GOMEZ

## Jon Rekondok laugarren postua lortu du Urrezko Aizkoran

Gipuzkoako II. Mailako Txapelketan, Unai Otaño eta Jon Irazu aizkolariak sailkatu dira finala jokatzeko

**I. Garcia**

Jon Rekondo leitzarrak laugarren postuarekin konformatu behar izan du Urrezko Aizkora Txapelketan. Iñaki Azurmendirekin jokatuko du hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko norgehiagoka, eta ezin izan du gipuzkoarra gailendu.

Gipuzkoako II. Mailako Aizkora Txapelketan eskualdeko sei aizkolari aritu dira asteburuan jokatutako bi finalerdietan. Unai Otaño ibartarra eta Jon Irazu zizurkildarra sailkatu dira finalerako. Mendaron jokatuko da, uztailearen 26an, 18:30ean.

Gipuzkoako Lasto Jasotze Txapelketan, Andoni Agirreurreta asteasuarra bigarren izan zen, 16 jasoaldirekin. Jasoaldi kopuru bera egin zuen Pello Argaia zizurkildarrak, baina hirugarren gelditu zuen, kitarakoan Agirreurretaren aurka galdu baitzuen.

### Iparraldeko Joku Torneoa

Hainbat leitzar parte hartzen ari dira Iparraldeko Joku Torneoan. Lehenengo jardunaldian, Lazaro Bujan leitzarra nagusitu zen ingude altxatzean, 56 jasoaldi eginenez. Txinga proban Migel Angel Sukuntza leitzarra izan zen onena, 30 plaza eginaz. Hirugarrena izan zen Bujan, 3 plaza burutuz.

# Bukatu da Herriartekoa Bidegoianentzat

Hernaniren aurka itzulerako hiru partidak galdu zituzten pilotari bidegoiandarrek, ordezkoekin jokatuta

**I. Garcia** Bidegoian

Ordezkoekin jokatuko zituen Bidegoianek Hernaniren aurka Herriarteko Txapelketako itzulera-ko partidak. Hiru partidak galdu zituzten, baina Luis Galarraga taldeko ardurak esan duenez, pozik daude emandako mailarekin.

Kadeteetan Urdanpileta eta Aburuza aritu ziren, jubeniletan Zelaia eta Aburuza, eta nagusietan Egiuren eta Auxkin Galarraga. Gazteenetan 22-15 izan zen emaitza, jubeniletan 22-11, eta na-



Txapelketan parte hartu duten Bidegoiango pilotariak. HITZA

gusietan 22-4. Aburuza infantilak izan arren, kadeteetan jokatuko izan eta Galarraga «gustura» azaldu da gazteak emandako mailarekin.

«Txapelketan parte hartzea esperientzia berri bat da berarentzat», gaineratu du prestatzaileak.

Galarraga «oso gustura» azaldu da Bidegoianek aurten Herriartekoan izan duen parte-hartzearekin. «500 biztanleko herri batentzat hiru kanporaketa jokatzeak meritua du», azaldu du taldeko arduradunak.

Bestalde, eskerrak eman nahi izan die txapelketan zehar laguntzen jardun dutenei, bereziki Reviglass enpresari, Saiaz elkarteari eta Patxi Urdapilletari; horrez gain, frontoira animatzera joan diren gazte zein helduei ere eskertu die Galarragak. Bidegoiango Udalak ez duela laguntzarik eman ere aipatu du taldeko arduradunak.

Bidegoian kanpoan utzi ondoren, Hernanik Oiartzunen aurka jokatuko du finalerdia. Beste finalerdian Donostia eta Azkoitia ariko dira elkarren aurka. <



**Eskertza**

**ESKELAK**

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



ESKERTZA

**JOXE MARI**

**IZTUETA ARMENDARIZ**

Bere emaztea, seme-alabak, biloba eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizute samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi.

Berastegi-Tolosan, 2011ko ekainaren 7an

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakartzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzten diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



17°  
14°

GOIZA	EKAITZA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	17°
HOTZENA	11°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): 902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Morant, R. Zaballarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**5 urte!**

**Iraitz Izagirre (Zegama).**

Zorionak eta muxuak Amets, aita eta amatxoren partez.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

**agurrak**

**Irudia**



**IKASTURTE BUKAERA, GEROZ ETA GERTUAGO**

Ikasturtea bukatzearen honetan, ikastetxeetako jaiak izan dira asteburuan. Villabonako Fleming eskolako festa larunbatean egin zuen. Goizean Pilota eta Pala Txapelketako finalak jokatu zituzten, eta ondoren, dantza eta abesti txanda izan zen (lehen irudia). Tolosako Hirukidek ere larunbatean egin zuten festa. Egun guztian zehar lehiaketak, kirolak, tailerrak, bazkaria, pailazoak, kalejira, San

Joan sua (bigarren irudia), buruhandiak... izan zituzten. Ibarrako Uz-turpek ere jende asko bildu zuen bere egunean, eta bertako ardura-dunek laguntza emandako guztiei, eta parte-hartzaileei, eskerrak eman nahi izan dizkie (azken irudia). Hauetaz gain, Tolosako Samaniegok (hirugarren irudia) eta Laskorainek, Villabonako Jesusen Bihotzak, eta Anoetako Herri Ikastolak ere egin zuten jaiak. HITZA

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** hitza info  
bertako egunkaria  
**egin zaitez harpidedun!**

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

**www.tolosaldea.hitza.info**  
**www.leitzaldea.hitza.info**

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ •NA: \_\_\_\_\_

•Lanbidea: \_\_\_\_\_ •Jaioteguna: \_\_\_\_\_

•Helbidea: \_\_\_\_\_ •Herria: \_\_\_\_\_

•P.K.: \_\_\_\_\_ •Tel.: \_\_\_\_\_

•Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

•Kontu zenbakia: